

### I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

#### GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

**2019ko uztailaren 12ko Erabakia, Gazteriako Laguntzaile lanposturako hautatuarena onesten duena kontratazioa, 2018ko enplegu eskaintza publikoan hautaketa prozesurako deian, Gazteriaren Foru Erakundea Arabako Foru Aldundiaren erakunde autonomoko lan kontratudun langileak kontratatzeko**

Uztailaren 10eko 374/2018 Erabakiaren bidez Gazteriaren Foru Erakundearen 2018rako enplegu eskaintza publikoa onestu zen.

2018ko uztailaren 24ko Administrazio Kontseiluaren ebazpenaren bitartez onartu ziren Gazteriaren Foru Erakundearen 2018ko enplegu eskaintza publikoa arautzen duten oinarri orokorrak.

2019ko ekainaren 17ko behin betiko zerrenda argitaratu zen, Gazteria Teknikaria lanpostuan. Hautatutako izangaia ondoren zehazten den lanpostura atxikita dago:

IZENA	LANPOSTUA	KODEA
Arantza Alvarez Fernández de Mendía	Gazteriako Laguntzailea	050108

Oinarri arautzaileen 8. apartatuarekin bat etorritz, pertsona honek aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu ditu ezarritako epearen barruan, eta agiri horiek aztertuta, ondorioztatzen da izangaia eskatutako betekizunak betetzen dituela; horrenbestez, egokia da pertsona honek langile lan kontratudun gisa kontratatzea, lanpostuen zerrendan lanposturako ezarritako baldintzekin bat etorritz.

Gazteriaren Foru Erakunde Autonomoaren Egitura eta Funtzionamendu Arautegia onartzen duen ekainare 8ko Diputatuen Kontseiluaren 26/2010 Foru Dekretuaren 11.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskera, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari dagokio, erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluko lehendakaria den aldetik, funtzio publikoan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailarekin elkarlanean, Erakunde Autonomoko funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostuak betetzeko hautaketa prozesuen deialdia eta oinarriak onartzea; bere ardura izango da, baita ere, prozedura horiek ebaztea.

Horregatik guztiagatik, ebazpen hau ematen da

#### EBAZPENA

Lehenegoa. Lehenegoa. Onestea Gazteriaren Foru Erakundearen 2018ko enplegu eskaintza publikoko Gazteriako Laguntzaile lanposturako kontratatzea ondoren zehazten den lanpostura atxikita dagoen izangaia:

LANPOSTUA	LANPOSTUA	KONTRATAZIO ERREGIMENA	IZEN-ABIZENAK
050108	Gazteriako Laguntzailea	Lan-kontratu Finkoa	Arantza Alvarez Fernández de Mendía

Bigarrena. Izendatutako izangaia hilabeteko epea du lanpostuaz jabetzeko, izendapena komunikatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Epe hori hamabost egun luza daiteke, izangaia hala eskatzen badu, eta horretarako bidezko arrazoirik izanez gero.

Ezinbesteko kasuetan izan ezik, ezarritako epealdiaren barruan lanpostuez jabetzen ez bada, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionarioa izateko eskubideak, deialdiaren ondoriozkoak, galduko ditu.

Hirugarrena. Kontratatutako izangaiak, bere lekuan, Langileen Estatutuko 14. artikuluan ezarritako gehieneko probaldia gainditu beharko du, 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 23koak, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak emandako bertsio berriaren arabera.

Laugarrena. Ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, aukeran, berraztertze errekurtsua, ebazpena eman duen organoaren beraren aurrean, hilabeteko epean. Hain zuzen, hala egin ahal izango da bat etorritik uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenaren, 123. artikuluekin eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen 123. artikuluekin.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 15a

*Kultura eta Kirol Saileko diputatua*  
*ANA DEL VAL SANCHO*